

Bestalde esperientzia solidarioa adinekoekin, askatasunaz gabetutako pertsonekin eta gazte boluntarioekin



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Herritarren partaidetza
eta enplegua



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

Bestalde esperientzia solidarioa adinekoekin, askatasunaz gabetutako pertsonekin eta gazte boluntarioekin

Adsis fundazioak 25 urte daramatza Gasteizko Adinekoei Laguntzeko San Prudentzio Zentro Integralarekin auzolandegiak egiten, Bestalde programaren bidez. Oso esperientzia positiboa da denentzat. Izan ere, balio terapeutiko handia du askatasunaz gabetutako pertsonentzat, urte hauetan ikusi denez, eta emaitza onak hartzaileentzat.

Egoitzako adinekoekin, Adsis/Bestalde programako gazte boluntarioekin eta askatasunaz gabetutako pertsonekin egindako jarduerari esker, programa hori oso baliagarria da elkarrekiko laguntzaren, integrazioaren eta adinekoek eman dezaketen maitasunaren aldetik (azken hori ere elementu garrantzitsua baita gizarteratzeari begira).

Belaunaldiarteko, kulturarteko eta, zenbait kasutan, erlijioarteko proiektu aitzindari gisa aurkezten dugu (izan ere, askatasunaz gabetutako pertsona batzuk musulmanak dira).

Gauza txikiak dira, Galeanok bere poeman dioen bezala, baina badakigu gauza txiki horiek egiteko poza sortzen dutela eta errealitatea aldatzen dutela, apur bat bada ere. Izan ere, esperientzian oinarrituta egiazta dezakegunez, errealitatea aldatu egin daiteke.

Geroztik, antzeko ekimen bat sortu da Aspaldiko egoitzan, bi errealitate desberdinen artean (hots, Portugaleteko Aspaldiko egoitzan bizi diren mendeko adinekoen eta ADSIS Fundazioaren Bestalde Eguneko Zentroko boluntarioen artean) bizikidetzarako eta harremanetarako gune naturalak sortzeko, integratzeko eta sentsibilizatzeko. Proposamenaren helburua da esperientzia sozializatzailerak, belaunaldiartekoak eta kulturartekoak sustatzea ingurunearekin (udalerriko gazteak, Gizarte Hezkuntzako Proiektua, merkatu solidarioa, inauteriak, Ondartza Denontzat programa...), asteroko jarduera terapeutikoen bidez. Hezitzaileak, arduradunak, boluntarioak eta askatasunaz gabetutako pertsona boluntarioak barne hartzen dituen dinamizazio talde batek programatzen ditu jarduera horiek.

1. Erakunde sustatzaileak

Adsis Bestalde Fundazioa, Aspaldiko Egoitza eta Adinekoei Laguntzeko San Prudentzio Zentro Integrala

2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

3. Xede taldea

Aspaldiko Egoitzako adinekoak, Bestaldeko askatasunaz gabetutako pertsonak eta Adsis Fundazioko boluntarioak

4. Lurralde eremua

Gasteiz (Araba)

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Boluntarioritza, elkartasuna, belaunaldiartekoa, kultura, tratu ona, partaidetza, Araba

7. Helburuak

Askatasunaz gabetutako pertsonen inguruko helburuak:

1. Elkartasunaren balioaren inguruko esperientzia jarraitua sustatzea.
2. Askatasunaz gabetutako pertsonak integratu eta gizarteratzeko urratsak egitea, gizarte eta komunitate intereseko lan baten bidez.
3. Kualitatiboki desberdina den testuinguru batean oinarrituta, elkartzeko aukera, bizikidetzeta eta belaunaldi eta kulturen arteko harreman positiboak ahalbidetzea, elkarrekin arduratsu eta zorrotz batetik abiatuta.
4. Norberaren askatasuna aktiboki eta arduraz baliatzearen esperientzia positiboa izatea, gizarte konpromiso baten bidez.
5. Beste pertsona batzuen errealitate zehatzaren inguruan lan egitea, beraiek animatzaileak eta norberaren eta adinekoen beharren subjektu protagonistak izanik.

Aspaldiko egoitzako eta San Prudentzio zentroko adinekoen inguruko helburuak:

1. Askatasunaz gabetutako pertsonen kolektiboarekiko elkartasun kontzientzia bultzatzea eta baliagarria izatearen sentimendua eta autoestimua hobekuntza sustatzea, belaunaldien eta kulturen arteko harremanen bidez.
2. Mendeko adinekoen isolamendua eta gelditasuna saihestea, harreman pertsonalizatuen eta nabariki afektiboaren bidez.

Adinekoen familien inguruko helburuak:

1. Esperientzia solidarioari buruzko informazioa ematea, parte hartu nahi duten jardueretan inplika daitezen, baztertuta senti ez daitezen, eta, era horretan, askatasunaz gabetutako pertsonekin harremanak ezartzeko aukera gehiago izan ditzaten.

Gizarte osoaren inguruko helburuak:

1. Askatasunaz gabetutako pertsonen kolektiboaren errealitateari buruzko galderak piztea, eta haiekin egiten den gizarteratze lanaren inguruko mezu positibo bat helaraztea.
2. Adineko instituzionalizatuen errealitateari buruzko galderak piztea, eta askatasunaz gabetutako pertsonak gizarteratzeko egiten duten laguntza lan garrantzitsuaren inguruko mezu positibo bat helaraztea.

Boluntarioen inguruko helburuak:

1. Askatasunaz gabetutako pertsonen eta adinekoen kolektiboaren errealitateari buruzko galderak piztea, gure gizarteko bi pobrezia eta bazterketa eremu direla kontuan hartuta.
2. Nire bizitzari buruz galdetzen uztea, partekatzen dudana eta inplikatzeko naizen errealitateari abiatuta.
3. Norbera interpelatzea, inplikazioaren esperientziatik eta errealitate partekatutik abiatuta. Nire historiaren irakurketa beste batzuekin egitea eta beste edozeinek bezala partekatzea, historia horren zauriak zein gauza baliotsu guztiak aitortuz.
4. Adinekoen eta askatasunaz gabetutako pertsonen arteko bizikidetzaren eta komunikazio testuinguru bat ahalbidetzea, elkarrekiko ikaskuntza eta laguntza sustatzeko.

8. Metodologia

Kolektibo horren askotariko bazterketa faktoreei modu integralean erantzungo dien esku hartze global eta malguko metodologia bat diseinatuko dugu.

Alde batetik, laguntza pertsonalizatua emango diogu askatasunaz gabetutako pertsona bakoitzari jarduera eta auzolandegi bakoitzean, eta, bestetik, talde harremana landuko dugu.

9. Alderdi berritzaileak

Zentzu elkartasunaren aldeko apustua egin dugu. Gure lanean oinarri ditugun printzipio filosofikoak (pertsonalismoa) eta terapeutikoak (logoterapia) oinarri hartuta, elkartasuna zentzu baldintza bat dela uste dugu. Orogen gainetik, espeziea, historia, «gu» gara, eta zentzua izateko, gizateria zer den, nor garen jakin behar dugu. «Zu» bat egotea da zentzuzko «ni» bat egoteko baldintza. Baina, gainera, gure izaerari esker, gizabanako batek sakontasun pentsaezinerainoko jakintza eskura

dezake bere bizitzaren ibilbidean. Baldintza bakarra dago horretarako: bestea behar du.

Eguneroko bizitzan egiazta daitekeen esperientzia da honako hau:

- Bestea beharrezkoa da nor garen jakiteko.
- Bestea behar dugu geure burua ezagutzeko.
- Bestea behar dugu geure identitateari eusteko.
- Interakzionismo sinbolikoak utzi zigun ikasbideari jarraikiz, elkarrekin bizi garelako eskuratzen dugu ezagutza. Eta, alderantziz esanda, elkarrekin bizi denak ezagutza eskuratzen du.

Laguntasunaren beharra izateaz gain, ez dut jakingo nor naizen nirekin lehen mailako harremanak, bigarren mailakoak, hirugarren mailakoak zein zeharkakoak dituzten pertsona guztiak ezagutzeko edo ezagutzera emateko prozesuan nolabait ere parte hartzen ez badut. Beraz, ezagutzaren elkartasun bat dago, egiaren elkartasun bat, zentzua lortzeko ezinbesteko baldintza den zentzu elkartasun bat.

Zenbaitetan, munduaren zati bat alde batera uzten dugu, hain zuzen ere benetan nor garen ikusi behar ez izateko. Guztiekiko elkarriketa, norabide guztietako elkarriketa ireki eta zirkularra ezinbesteko baldintza da zentzua lortzeko. Horregatik, hain zuzen, behar partekatuak dira elkartasuna eta zentzua. Edonola ere, zentzuak elkartasuna behar duen bezala, elkartasunak zentzua behar du adimentsua izateko, interesak bereizteko, harremanak izendatzeko, aukerak baloratzeko, sentitzeko, pentsatzeko, konfiantza izateko eta jarduteko.

Giza ekintza eta zentzua bereizezinak dira. Zentzugabekeria batzuek kalte egiten diote elkartasunari; zentzu formulazio batzuk ez dira batere solidarioak. Argiago esanda, proiektu bat ezin da elkartasunera bideratu zentzu proiekturik ez badu, kulturaren dimentsioa lantzen ez badu. Era berean, zentzua landu behar duen proiektu batek elkartasun baldintzak bete behar ditu.

Elkartasuna dinamika bat da, non topaketak, askotan, kontraesanak, bitxitasunak, interes talkak eta abar ekartzen baititu. Behar partekatuaren ikuspegiaren ondorio nagusia ez da gatazkak ikuspegi harmoniatsu baten bidez desagerraraztea, baizik eta elkartasunerako zentzuari eta zentzurako elkartasunari lehentasuna ematea, «fedea eta justizia» goiburua eraberritzea, «zentzuaren eta elkartasunaren» aldeko deialdi unibertsalista egiteko.

Zentzuaren, egiaren eta ezagutzaren elkartasun horren aldeko apustua egin dugu 25 urtez, eta auzolandegiak eta elkartasun esperientziak egin ditugu adinekoekin. 25 urtez, Gasteizko Adinekoiei Laguntzeko San Prudentzio Zentro Integralean egin ditugu auzolandegiak, eta 7 urtez Portugaleteko Aspaldiko Egoitzan, giza ekintza oro ezinbestez zentzuari lotuta dagoela eta horretarako ezinbesteko baldintza dela jakinik.

Urte hauetan, pribilegio handia izan da jarduera hori egin ahal izatea. Topaketa solidario, belaunaldiarteko, kulturarteko eta —zenbait kasutan— erlijioarteko baten esperientzia izan da, alde batetik, Basauriko espetxeko askatasunaz gabetutako pertsonen, Aspaldiko egoitzako pertsonen eta udalerriko gazte boluntario zein

biztanleen artean, eta, bestetik, Arabako eta Basauriko espetxeetako pertsonen, Arabako San Prudentzio egoitzako pertsonen eta Bizkaiko gazte boluntarioen artean.

Urte hauen guztien balorazioan oinarrituta, arestian azaldutako printzipioak berresten eta finkatzen ditugu, ekintza tresna terapeutiko ordezkazina dela jakinik, bai askatasunaz gabetutako pertsonentzat, bai adinekoentzat eta bai parte hartzen duten gazte boluntarioentzat.

Zalantzarik gabe, pozgarria da esperientzia garrantzitsu, adoregarri eta aldarazle hori gauzatu ahal izatea, duela hamabost urtez geroztik errealitate bihurtutako utopia hori. Auzolandegi bakoitzak berria izan nahi du, nahiz eta urteetan metatutako esperientziarekin eta lehen urteko itxaropen berarekin hasi. Esparru bikoitza izaten jarraitzen dugu:

- Adsis Bestalde programa, Adsis Fundazioak Arabako eta Basauriko espetxeetan garatzen duena.
- Adinekoei Laguntzeko San Prudentzio Zentro Integraleko Animazio Soziokulturaleko Programa, Sirimiri Servicios Socioculturales SLko animatzaileak garatzen duena.

Adinekoei Laguntzeko San Prudentzio Zentro Integraleko adinekoen eta Arabako eta Basauriko espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden pertsonen arteko elkartasun jarduera bat (belaunaldiartekoa eta kulturartekoa) egitean datza proiektua, eta ADSIS Bestalderi lotuta dago.

Jarduera horri esker, berariaz landu daitezke askatasunaz gabetutako pertsonak gizartean txertatzeko prozesuak, eta adinekoek, integrazio eragileak izaki, ilusioa eta esperientzia helaraz dezakete, humanizatu eta erantzukizuna eman dezakete, eta batez ere, baliagarriak izatearen sentimendua piztu dezakete.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Proiektuaren ebaluazioa oso garrantzitsua da, osagaiak, prozesuak eta emaitzak aztertzen baitira. Informazio hori gabe, oso zaila da etorkizuneko esku hartzeen eta egin litezkeen aldaketen inguruko erabaki egokiak hartzea. Era berean, proposatutako helburu operatiboen lorpen maila egiaztatzeko aukera emango digute adierazleak.

Proiektuaren ebaluazio on bat egituratzeko, adierazle kuantitatiboak zein kualitatiboak edo bizipenezkoak hartuko ditugu kontuan.

EBALUAZIO KUALITATIBOA

- Jarduera ebaluatzeko bilerak, egunero goizez egiten direnak.
- Eguneko bilerak, gauero boluntarioekin egiten direnak.
- Arratsaldeko jarduerak baloratzeko batzarrak.
- Azken ebaluazioa, alderdi guztiak aztertzeko auzolandegiaren azken egunean egiten dena.
- Auzolandegiko esperientziari buruzko gutun pertsonalak, askatasunaz gabetutako pertsona bati eta boluntario bati eskatzen zaizkienak.

- Adsiseko taldeak auzolandegiaren inguruan egindako balorazioa.
- Bestaldeko taldeak eta egoitzako animatzaile soziokulturalak auzolandegiaren inguruan egindako balorazioa.
- Memoria egitea.

EBALUAZIO KUANTITATIBOA

- Boluntarioen gogobetetze maila.
- Galde sorta batzuk landu dira datu jakin batzuei buruzko informazioa eskatzeko (hala nola adinari eta jatorriari buruzkoak), eta jarreraren eskala bat eraiki da metodo diferentzial semantikoan oinarrituta (Belmonte, M. 1990). Eskala horren konstruktua «belaunaldiarteko programa» zen, eta adjektibo bipolarren 25 azpieskalez osatuta zegoen.
- Memoria egitea.